

22-09-23 Mahai negoziatzailea**Kudeaketako lanpostuen zerrenda, LEPa eta monografiak**

LAB sindikatuak aldebakarrez 2018an **sinatutako akordioari esker** sortu da **Kudeaketako lanpostuen zerrenda**. Akordio hau garatzeko 2019an aurreakordioa sinatu genuen eta azken hau ez betetzeagatik Haurreskolak Partzuergoa salatu genuen. **Epaitegiko ebazpenak existitzen ez zen kudeaketako langileen Lanpostuen zerrenda sortzera, funtzioak negoziatzera eta LEPa egitera zigortu zuen enpresa**, 2018ko akordioan jaso zen bezala. Haurreskolak Partzuergoko **kudeaketako ordezkoen zerrenda propioa sortu zen** 2019an LABek, hau ere aldebakarrez, sinatutako akordioan jasotakoari jarraiki.

Gauzak horrela, argitaratutako kudeaketako lanpostuen zerrenda, http://www.haurreskolak.eus/adj_documentos_informacion/724.pdf egokituko da **Zuzendari Pedagogikoaren lanpostua gehitzeko**. Hasieran izendapen askeko postua izan behar bazen ere egiturazko lanpostua izan dadin LPZan sartzea erabaki du Zuzendaritza Batzordeak. LABek adierazi zuen onartuko zuela baldin eta hezitzaileen LPZan ez bazuen eraginik. Beraz, 27. lanpostua izango da baina **ez da LEP honetan eskainiko** irailean sortu baita, **eskaintza berdin mantentzen delarik**, http://www.haurreskolak.eus/file_opelep?id=1.

Kudeaketako LEParen deialdiaren inguruan, administrazioak prestasuna adierazi zigun ekarpenak jaso eta negoziatzeko. **LABetik** argi esan genuen hezitzaileen prozesuarekin bezala, Administrazio publikoan **behin behinekotasun tasa jaisteko legea aintzat hartzea** eskatzen dugula eta Haurreskolak Partzuergoan alor honek izan dituen eta dituen **berezitasunengatik** (ez da orain arte LPZarik egon, ez da LEParik egon, ez da barematu ordezkoen zerrenda,...) hezitzaileenetik desberdinduko dugula, **helburua dauden langileak finkatzea dugularik**.

LABetik, prozesua bukatu osterako, **langileren bat finkatu ezean ordezkoen lehentasunezko zerrenda eratzeko proposamena** egin genuen. Haurreskolak Partzuergoak lanpostuen monografiak egiteko, beste gauza batzuen artean, lan hitzarmena eta 2018ko akordiotik eratorritako Lanpostuen Balorazio Batzordean landutakoa kontuan hartu dituela adierazi zuen.

Lehenengo zirriborroen gaineko azalpenak eta zalantzak argitu ostean, langileekin partekatu, ekarpenak jaso eta baloratu egingo ditugu.

Argi dago orain arte sinatu eta egindakoek emaitzak ematen jarraitzen dutela, beraz, animo eta aurrera eta edozein zalantza, galdera edo iradokizun baduzue jarri gurekin harremanetan zalantzarik gabe.